



# Emakumeak Indian

Garapenaren eragile

## Mujeres en India

MOTOR de desarrollo



ALBOAN

## ALARGUNAK

Indiako tradizioak emakumeari ematen dion papera, inolako zalantzarik gabe, bigarren mailako papera da, gizarte-protagonismorik gabekoa eta erabat gizonen mendekoa. Ama ezkongabeak, emakume alargunak, senarrek zapuztutako emakumeak eta etxeke tratatu txarren biktima direla salatzen duten emakumeak (oso gutxi) estigmatizatu egiten dituzte komunitatean bertan, eta kasu askotan auzoetatik alde egin behar dute.



Diskriminazio sozial, ekonomiko eta kultural argi hori, emakumeak desabantaila- eta mende-kotasun-egoeran uzten dituen, are gehiago gogortzen da bakarrik dauden eta beren bizitzari zentzua ematen dien gizonetzko figura bat ez duten emakumeen eta dalit-emakumeen (kastarik gabekoak) testuingurura joaten garenean, diskriminazio anizkoitza jasaten baitute: emakumeak, bakarrik daudenak, baliabide ekonomikorik gabeak eta "ukiezinak". Baina guk aztertu nahi duguna da emakume horiek goi-kasten aldetik diskriminazioa jasateaz gain, emakume izateagatik, emakume jaiotzea argi eta garbi estigmatizatuta dagoen testuinguru batean, beren komunitatean aldetik ere diskriminazioa jasatea eragiten duela. Bakarrik dauden emakumeak (gehienak alargunak dira, baina beren bikotekideek abandonatuta utzi dituztenak ere egon badaude) tradizio hinduistarentzat zorte txarraren ikur dira, eta kasu askotan beren senarren heriotzaren (edo abandonatzearen)



errua botatzen zaie. Bere zeregin soziala erabat baliogabetuta geratzen da gizonezko figura batek abalatzeko ez duen unetik aurrera.

Indian 480 milioi emakume baino gehiago daude. 2015. urterako proiektioek 615 milioi inguruko emakume kopurua kalkulatzen dute. Alfabetatuta dauden Indiako emakumeen kopurua %47,8 besterik ez da, ezta erdia ere, eta gizonen kopurua % 73,54ra iristen da. Gaur egun kalkulatzen da Indian 245 milioi emakume ez direla gai irakurtzeko ezta idazteko ere. Izan ere, mutilak baino



neska askoz gehiago geratzen dira eskolara joan gabe (eta matrikulatzen direnean ere, desertzio-indizea nesken kasuan mutilen kasuan baino askoz handiagoa da). Tamil Nadu-ren kasuan, emakumeen % 22 (eta gizonezkoen % 9) ez dira inoiz joan eskolara.

Bestalde, emakumeen lana gutxietsita dago eta ez da aintzat hartzen. Gizonek baino ordu gehiago lan egiten dute eta etxeko funtzio eta erantzukizun guztien kargura daude (lan hori ez

dago ordainduta eta denontzako "ikusezina" da). "Indian System of National Account" erakundeak editatutako azken txostenaren arabera, emakumeek Indian lan egiten dituzten orduen % 72 ez daude ordainduta.

Hortik ondorioztatzen da emakumeek lortzen duten kalkulatutako diru-sarrerak hileko 100 € besterik ez izatea, gizonezkoena hileko 250 € izanik. Gainera, enplegatutako emakume horien % 9k ez zuten inolako soldatarik jasotzen (ez dirutan ezta espezetan ere) beren lanarengatik, eta gizonezkoen kasuan %1 besterik ez da. Egia da, era berean,



emakumeek beren lantokietan sexu-jazarpena jasaten dutela askotan, batez ere sektore informalean. Landa-eremuetan, non kasta eta generoa elkarlotzen diren, emakume dalit langileek beste kasta batzuetako emakumeek baino jazarpen handiagoa jasaten dute.



## Gizartea eta Ekonomia:

Emakumeak, gainera, legez diskriminatuta daude, lurrerako eta jabetzarako eskubideak ez zaizkielako onartzen. Horren arrazoia da familia normalean modu patrilinealean egituratzen dela, oinordetzak aitetatik semeetara igaroz, eta modu patrilokalean, emazteak beren senarren familiekin bizitzera joanez. Legeak eskubideak ematen dizkien kasuan ere, emakumeek ez dituzte erreklamatzeko, horiei buruzko ezjakintasun handia dagoelako.

Emakumeek joan-etorrietarako duten autonomia ere oso mugatuta dago. Tamil Nadu-ko emakume gehienek (denek ez) merkatura edo osasun-zentrora bakarrik (gizon batek lagundu gabe) joan ahal izatea lortu badute ere, soilik horien erdia joan daiteke bakarrik beren herrixketatik edo komunitatetik kanpo.

Aipatu diren datu horiek guztiek argi uzten dute Indiako gizartean emakumearen papera erlijioaren paperak eta emakumea emakume izateagatik arbuiatzen duten estigma kultural eta sozialek markatzen dutela. Bestalde, Manuren Kodeak (Hinduismo Epiko eta Puranikoaren garaian idatzi zen kode morala), egungo herri-moralaren oinarria denak, emakumeek gizonekiko duten mendekotasun posizioa adierazten du: "...dohainik ez izan arren, senarra jainkoa izango balitz bezala gurtu eta errespetatu behar du etengabe emazteak". "Bere aitak hartzaroan babesten du, bere senarrak gartzaroan eta bere semeek zahartzaroan: emakumea ez dago eginda independentzia izateko".



Emakumeak Indian  
Garapenaren eragile  
Mujeres en India  
Motor de desarrollo